

2014KO KONTRATAZIO-ZERRENDETAN IZENA EMATEKO JARRAIBIDE OROKORRAK, 2011KO EPE-RAKO DEITUTAKO KATEGORIETAN ETA BESTE BOST KATEGORIATAN ZEINETAN INDARREAN DIREN ZERRENDAK BERRIZ IREKITZEN DIREN.

2014KO KONTRATAZIO-ZERRENDAK KATEGORIA HAUETARAKO ZABALTZEN DIRA:

Orain zabaltzen diren kontratazio-zerrendak, hauek dira:

- a) **2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitutako kategoriak**, jarraibide hauei atxikitako taulan agertzen direnak,
- b) horietaz aparte kategoria hauek ere zabalduko dira:
 - Informatikako Goi Mailako teknikaria.
 - Euskararen Normalkuntzako Goi Mailako teknikaria.
 - Segurtasun eta Higienearen Prebentziorako Goi Mailako teknikaria.
 - Euskararen Normalkuntzako Erdi Mailako teknikaria
 - Segurtasun eta Higienearen Prebentziorako Erdi Mailako teknikaria.

LEHENTASUNAREN ARABERA IZENA EMAN DEZAKETEN PERTSONAK

A. 2011KO EPE-TIK ERATORTZEN DIREN KATEGORIAK

2011ko Enplegu Publikorako Eskaintzan deitutako kategoriei dagozkien 2014ko kontratazio-zerrendetan interesdun guztiek izena eman dezakete, eta lehentasun hauen arabera ordenatuko dira jasotako eta onartutako eskaerak:

1. lehentasun-maila:

Lehentasun-maila honetan egongo dira **2011ko EPEko kategorian gainditu zutenak**, beti ere kontratazio-zerrendako kategoria horretan izena ematen badute eta oinarri orokorrak eta espezifikoak betetzen badituzte.

OHARRA: 2011ko EPE gainditu izanak ez dakar berez oposaketa horren ondoriozko kontratazio-zerrendetan automatikoki onartua izatea, zeren eta, horretarako, beharrezkoa baita aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena ematea eta behar den dokumentazioa aurkeztea izen-emateko epearen barnean.

2. lehentasun-maila:

Lehentasun-maila honetan egongo dira **2011ko EPEa gainditu ez zutenak edo aurkeztu ez zirenak**; edonola ere, beharrezkoa izango da behin-behineko kontrataziorako zerrendetan izena ematea eta oinarri orokorrak eta espezifikoak betetzea eta izen-emateko epearen barnean aurkeztea dagokion dokumentazioa.

B. 2011KO EPE-TIK ERATORTZEN EZ DIREN KATEGORIAK

Indarrean diren kontratazio-zerrendetatik beharren arabera berriz irekitzen diren bost kategorietan, izena eman dezakete dagokien EPEren oinarri orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztenek.

- a) Informatikako Goi Mailako teknikaria. **2008ko EPE**
- b) Euskararen Normalkuntzako Goi Mailako teknikaria. **2006ko EPE**

- c) Segurtasun eta Higienearen Prebentziorako Goi Mailako teknikaria. **2008ko EPE**
- d) Euskararen Normalkuntzako Erdi Mailako teknikaria. **2006ko EPE**
- e) Segurtasun eta Higienearen Prebentziorako Erdi Mailako teknikaria. **2008ko EPE**

Osakidetza webgunearen bidez emango da dagokion informazioa:
www.osakidetza.euskadi.net.

ESKAERAK AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA

Eskaera webguneko aldi baterako kontratazio-programa erabilita egingo da (www.osakidetza.euskadi.net); honela iritsi ahal da bertara: Profesionala/Giza-Baliabideak/Hautaketa eta horniketa/Aldi baterako kontratazioa/2014ko kontratazio-zerrendak/**Eskaera**

Kontratazio-zerrendetarako eskaera beteta, "**Kontsulta pertsonalizatuak**" atalera sartu beharko duzu, eta hortxe, eman "**Curriculum**" jartzen duen lekuan, jakiteko informaziorik atxiki edota agiritik aurkeztu behar ote duzun jarraibideen arabera.

2014ko kontratazio-zerrendetan **izena emateko epea 2015eko urtarrilaren 8an hasiko da (goizeko 9:00etan) eta urtarrilaren 30ean amaituko da (arratsaldeko 14:00etan), biak barne.**

ONARTUA IZATEKO DOKUMENTAZIOA, SALBUESPENAK ETA ENTREGATZEKO TOKIA

Zerrendak kudeatzeko eta bertan onartua izateko, **titulazio akademikoa, lan-esperientzia eta euskerari buruzko titulazioa** kontuan hartuko dira.

Agiriak aurkeztu baino lehen, egiaztatu ea salbuespen hauetakoren batean zauden.

Salbuespenak agiriak aurkezteari dagokionez:

1.- **Ikasketa-tituluak:** Ez da aurkeztu beharko kategoria/lanpostu funtzionalerako behar den titulazioa, "Egoera"-n "Baliozkotuta" dagoela agertzen bada, curriculumeko Prestakuntza Titulazio Akademikoa atalean.

2.- **Lan-esperientzia:** Hurrengo kasuetan, ez da egindako zerbitzuen egiaztagiririk aurkeztu beharko:

- Osakidetza egindako zerbitzuak, ofizios hartuko baitira aintzat.
- Beste Administrazio Publiko batzuetan egindako zerbitzuak, Curriculumeko "Lan-esperientzia" atalean kontratazio-zerrendetan aipatu nahi diren egindako zerbitzu-aldi guztiak agertzen badira.

Gainera, gogoratu beharrekoa da kontratazio-zerrendetan soilik hartuko dela aintzat **2011ko EPEn**, zegoen kategorian, **izena emateko azken egunera arte izandako lan-esperientzia**. Hala ere, hori ez da eragozpen izango 2011ko maiatzaren 9ko Kontratazio zerrendetako Akordioa jarraituz lan-esperientzia eguneratzeko.

Lotura: Egindako zerbitzuen lotura Osakidetza 2011ko EPEn egin bazenuen oinarri orokorren 13.1 atalean datozen kasuetakoren batengatik, ezingo duzu aldatu. Izan ere, kontuan hartuko da zerrenda hauetarako.

Behin-behineko kontratazioetarako zerrendak berriz irekitzen diren —eta 2011ko EPetik eratorzen ez diren— **bost kategorietan, esperientzia profesionala konputatu ahalko da zerrenda hauetan izena emateko azken egunera arte.**

3.- **Euskara-titulazioa:** Ez da euskara-tituluaren fotokopiarik aurkeztu beharko, kontratazio-zerrendetan aipatu nahi den hizkuntz eskakizuna curriculumean sartuta badago, edota Osakidetzak antolatutako 2014ko bigarren deialdian lortu izan bada.

Aurreko salbuespenetan ageri ez bazara, agiri hauek aurkeztu beharko dituzu:

Aurreko salbuespenetan ez bazaude, hurrengo hiru ataletan datozen **agiriak aurkeztu beharko** dituzu. Horretarako, **agiri-eredu bat izango duzu, Osakidetzaren webguneko oharren ataleko zerrendan argitaratuta egongo dena** (www.osakidetza.euskadi.net), helbide honetan: Profesionala/Giza-Baliabideak/Hautaketa eta horniketa/Aldi baterako kontratazioa/2014ko kontratazio-zerrendak.

1.- Kontratazio-zerrendari dagokion lanpostuan jarduteko behar den titulazioaren edo emateko eskubideak ordaindu izana egiaztatzen duen **frogagiri edo dokumentuaren fotokopia konpultsatua edo notarioren lekukotasuna**. Atzerrian lortutako tituluei dagokienez, dagokion Espainiako Ministerioak berauek homologatzen edo onartzen dituen erabakiarekin batera aurkeztu beharko dira.

Aintzat hartuko dira 2014ko kontratazio-zerrendetan izena emateko azken egunera arte lortutako eta egiaztatutako titulazioak.

Aplikazio informatikoan, “**Kontsulta pertsonalizatuak**” ataletik, “**curriculum**” kontsultatu beharko da.

- **Sarbidea ematen duen titulazio akademikoa “BALIOZKOTUTA”** dagoela agertzen bada “Egoera” atalean, **ez da aurkeztu beharko**.

- Curriculumeko prestakuntza-titulazio akademikoko “Egoera” atalean **EZ BADA agertzen titulazio hori “BALIOZKOTUTA”** dagoela baina kontratazio-zerrendetan onartua izateko behar den titulazioa agertzen bada, **aurkeztu egin beharko da titulazio hori**, kontratazio-zerrendetan izena emateko epean.

- **Dagokion titulazioa agertzen EZ BADA** curriculumeko Prestakuntza-titulazio akademikoa atalean, eskatzaileak **sartu beharko du** aipatutako atalean lanpostu funtzional horretan aritzeko behar den **titulazioa**, aplikazioak eskatzen dituen datu guztiak adierazita, eta **izena emateko epean aurkeztu beharko du**.

2.- **Lan-esperientzia aitortzen duen jatorrizko ziurtagiria edo horren kopia kautoa**, notarioak egina, bertan xehe adieraziz: lan-denboraldi desberdinetan izandako kategoría, lotura juridikoa eta taldea, hasierako datatik (eguna, hilabetea eta urtea) amaierako datara arte (eguna, hilabetea eta urtea). Ziurtagiri horrek dagokion administrazio publikoko organo eskudunek emana behar du izan, eta horrelakoetarako ezarrita daukan ereduari jarraitu behar dio.

Aintzat hartuko dira 2011ko EPEn, zegokion kategorian, izena emateko azken egunera arte egindako zerbitzuak (ikus jarraibide hauetako Eranskinean).

Lotura: Osakidetzaren 2011ko EPEn egindako zerbitzuen lotura egin ez bazenuen eta oinarri orokorren 13.1 atalean datozen kasuetakoren batean bazaude, oraintxe egin beharko duzu. Horretarako, **lotura-agiri** bat izango duzu, Osakidetzaren webguneko oharren ataleko kontratazio-zerrendan argitaratuta (www.osakidetza.euskadi.net).

3.- Egiatzatutako euskara-tituluaren fotokopia arrunta. Aintzat hartuko dira 2014ko kontratazio-zerrendetan izena emateko azken egunera arte lortu eta egiatzatutako euskara-tituluak.

Dokumentazioa aurkezteko tokia:

Izena emateko eskabidea aplikazio informatikoaren bidez igortzen da; beraz, **ez da aurkeztu behar.**

Osakidetzako langilea **bazara** eta erantsi beharreko **dokumentazioa** baduzu, horretarako salbuespenen barruan ez dagoenez, **lan egiten ari zaren Zerbitzu Erakunde**ko **Pertsonaleko Zuzendaritzan** aurkeztu beharko duzu.

Osakidetzan lan egiten ari ez direnen kasuan, toki hauetako edozeinetan aurkeztu ahalko dute dokumentazioa edo bertara igorri:

- Osakidetza – Hautaketa eta Horniketarako Zerbitzua – 2014ko kontratazio-zerrendak (Araba kalea, 45, Gasteiz)
- Ezkerraldea-Enkarterri-Cruceseke ESI (Gurutzetako Plaza, zk/g, Gurutzeta-Barakaldo)
- Bilbo-Basurtuko ESI (Montevideo etorbidea, 18, Bilbo, edo Kale Nagusia, 62-2., Bilbo)
- Barrualde-Galdakaoko ESI (Labeagako auzoa, zk/g, Galdakao)
- Donostialdeako ESI (Begiristain Doktorea pasealekua, zk/g, 20014, Donostia (Gipuzkoa)
- Bidasoako ESI (Zubieta finka, Mendeluko auzoa, zk/g, Hondarribia)
- Debabarreneko ESI (Mendarozabalgo auzoa, zk/g, Mendaro)
- Debagoieneko ESI (Nafarroako etorbidea, 16. Arrasate)
- Goierri-Urola Garaiko ESI (Argixao zk/g, Zumarraga).
- Lezako Ospitalea (Gasteiz-Logroño errepidea, 59. km. Guardia)

IZENA EMATEKO ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Eskabidea egoki betetzeko, hurrengo pauso hauek eman behar dituzu:

1.- “Eskabidea” atalean egin behar da eskaera. Lehenengo, NAN/AIZ dokumentu-mota sartu behar da, zenbakia (ondoren, letra jarri, ez marrarik ez tarteko punturik jarri gabe), eta kategoria/lanpostu funtzionala. Eskabide bat bete beharko duzu izena eman nahi duzun kategoria bakoitzeko.

Eskabidea betetzeko, **pasahitza** eskatuko zaizu. Hau izango da pasahitza:

- Izena 2011ko EPEn eman bazenuen: 2011ko EPEn izena emateko erabili zenuena.

2011ko EPEn izenik eman ez bazenuen baina onartuta bazeuden 2011ko kontratazio-zerrendetan: zerrenda horietan izena emateko erabili zenuena.

- Aurrekoez baliatuta ezin baduzu zerrendetan izenik eman, baina Osakidetzan lan egin eta bertan curriculuma baduzu, kontratazio-zerrendetara sartzeko pasahitza curriculumekoa izango da.

- Aurreko ataletan ez bazaude, aplikaziora lehen aldiz sartzean adieraziko zaizun pasahitza erabili beharko duzu. Pasahitza gogoratu beharko duzu etorkizunean kontsultak egin eta eskabidea aldatu nahi baduzu.

Pasahitza gogoratzan ez baduzu, eska dezakezu eskaera-orria beteta, sarbideko **kontrol-sistemak** pasahitza eskatzen dizunean. Kasu horretan, pasahitza igorriko zaizu pasahitza erabili zenuenean emandako posta helbidera (esaterako: 2011ko EPEn edo 2011ko kontratazio-zerrendetan). Era horretan ezin baduzu pasahitzik lortu edo igorritakoak eskaera egiten uzten ez baduzu, deitu 945 006150 telefono-zenbakira, eta hor esango dizute nola eskatuko eta jasoko duzun pasahitza, edo, bestela, igorri mezu elektronikoa bat helbide honetara NANaren fotokopia bat atxikiz: lp-lc@osakidetza.net.

2.- Eskabidearen lehenengo erlaitza bete beharko duzu (**1. urratsa: datu pertsonalak**). Eskabidean ematen dituzun helbidea, telefonoak eta posta elektronikoa baliozkotzat joko dira jakinarazpenei begira.

3.- Eskabidearen bigarren erlaitza bete beharko duzu (**2. urratsa: eskaera-datuak**), jarraian esaten den moduan:

3.1.- Egiatzatutako hizkuntz eskakizuna: hauta ezazu egiatzatuta duzun hizkuntz eskakizuna, edo adierazi ez duzula.

3.2.- Gidabaimena: ez da beharrezkoa (berariaz eskatzen den kategorietan izan ezik). Seinalatzen ez baduzu, ez duzula ulertuko da.

3.3.- Lanpostu hutsen zerrenda: osasun-barruti bat, bi eta/edo hiru hautatu ahal dituzu (Araba, Bizkaia eta/edo Gipuzkoa), baina kontuan hartu, onartutako eta baztertutako zerrendak argitaratu ondoren, ezin izango duzula osasun-barrutirik gehitu, baina bai murriztu (eskatutako barrutiren bat ezeztatu), Erakunde Zentralera idazki bat igorrita kategoriako kontrataziorik eskaini aurretik.

3.4.- Ordezkapenen zerrenda: zerrenda horretan, zerbitzu-erakunde bat edo bi zerbitzu-erakunde hauta ditzakezu (Ospitaleak, Erakunde Sanitario Integratuak, Eskualdeak, Osasun Mentala eta abar). Lantoki ezberdinak dituen zerbitzu-erakunde bat hautatuz gero (Eskualdea, ESI, Osasun Mentala, Emergentziak, Transfusio eta Giza-Ehunen Euskal Zentroa, etab.), “Eskainitakoak” taulan egiatzatu ahal dituzu zentro horiek eta **azpisailekin bat egin, bost zentorekin gehienez**; horretarako, sakatu “Eskainitakoak” eta aktibatu eskuineko gezia, “Hautatutakoak” atalera igaro daitezen. Azpisailekin egiten ez baduzu, ulertuko da zerbitzu-erakunde horretan eskainitako zentro guztiak hautatzen dituzula.

OHAR GARRANTZITSUA: Zerbitzu Erakunderik ez baduzu aukeratzen, ez zaizu eskainiko Kategoria horrekiko kontraturik ORDEZKAPENEN ZERRENDATIK.

Ordezkapenentarako zerrenda honetan, gainera, zein **lanaldi** eskaintzea nahi duzun adierazi behar da, eta, horretarako, hiru aukera daude:

- **edozein lanaldi-mota** (kasu honetan, bai lanaldi osoa bai murriztua eskainiko zaizkizu).
- **lanaldi osoa bakarrik** (kasu honetan, bakarrik eskainiko zaizkizu lanaldi osoko kontratuak).
- **murriztutako lanaldia bakarrik** (kasu honetan, bakarrik eskainiko zaizkizu lanaldi-murrizketak betetzeko kontratuak).

3.5. “Zin edo promesa” laukia markatu behar duzu, zure datuak erabiltzeko baimena emateko.

3.6. Sakatu “Baieztatu”, bestela zure eskabideak ez baitu ondoriorik izango. Baieztatu aurretik, egiatza ezazu zuzen bete ote dituzun datu pertsonalak eta eskabide-datuak, batez ere plaza hutsetarako eta ordezkapenentarako egindako hautaketetan.

3.7. Zure eskabidea inprimatu ahal duzu, **Egiatagiria inprimatu** eta gero **Inprimatu** sakatuta.

Informazio gehigarria eskura dezakezu dokumentu honetan: “Izen-ematea elektronikoki egiteko Jarraibideak”

ESKABIDEA KONTSULTATZEA, ALDATZEA ETA EZEZTATZEA

Eskabidea beteta, kontsultatu ahal duzu zure eskaera zuzen egin den eta behar diren datuak dituen; horretarako, sakatu “**Kontsulta pertsonalizatuak**”, sartu zure NAN/AIZ eta pasahitza, eta sakatu **Eskabidea: Kontsulta**.

Kontratazio-zerrendetan izena emateko epearen barruan, eskabidean jarritako edozer aldatu ahal duzu; horretarako, sakatu “Kontsulta pertsonalizatuak”, sartu zure NAN/AIZ eta pasahitza, eta sakatu **Eskabidea: Aldatzea**.

Horretaz gainera, epe horretan, zure eskaera ezeztatu ahal duzu; horretarako, sakatu "Kontsulta pertsonalizatuak", eta **Eskabidea: ezeztatzea** atalean egin ahalko duzu. Eskabidea ezeztatzen baduzu ez da kontuan hartuko lehenago izena eman duzula kontratazio zerrendetan, ez baita kontuan hartuko ezeztatutako eskabidea; baina epe barruan eskabide berri bat egingo bazenu, izena eman duzula kontuan hartuko da.

WEB-ORRIKO ARGITALPENAK

Egin ondoren, jarraibide hauen hasieran aipatutako web-orrian argitaratuko dira kontratazio-zerrendak, eta baita berauei aurka egiteko erregimena ere.

Web-orri honetan jakinaraziko dira hainbat pertsona interesaturi eragin diezaieketen kontratazio-zerrendeiei lotutako alderdi guztiak. Web-orri honetako “Zerrendak” atalean jarriko da zein pertsonak eta zein ordenatan osatzen dituzten kontratazio-zerrendak.

Halaber, egokitzen jotzen den kategorietan, web-orri honetan iragarriko dira bitartekoen kontratazio-eskaintza masiboak, eta bertan argituko da zein pertsona sartu ahal diren horietan, kontratazio-zerrendetan dituzten puntuazio eta disponibilitateagatik. Adi egon orri horretan jartzen diren oharrei.

KATEGORIA OFIZIALA GIDARIA

Ofiziala Gidaria kategorian izena emateko, titulazio-baldintzak eta gidabaimena hartuko dira kontuan, indarrean den araudian bakoitzarentzat exigitzen den bezala.

Informazio gehiago webguneko ohar baten bidez.

ETENGABE IREKITA DAUDEN KATEGORIAK

Izena emateko 1. eta 2. lehentasun-mailetako epea amaituta, informazio berria emango da epea noiz zabalduko den esanez **etengabe irekita dauden kategorietarako** (Fakultatibo Medikoak, Erizaintza, Osasun Mentaleko Erizaintza, Lan-Osasuneko Erizaintza eta Emaginak), aldi baterako kontratazio-zerrendak arautzen dituzten arauak jarraiturik.

ARAU APLIKAGARRIAK

Aldi baterako kontratazio-zerrendeiei aplikatu beharreko araudia, batetik, 2011ko maiatzaren 9ko Erabakia da (2011ko ekainaren 6ko EHAA), Osakidetza Ente Publikoko Administrazio-Kontseiluarena, Osakidetzako aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzeko; eta, bestetik, aplikazio orokorreko gainerako arauak.

Gasteizen, 2014ko irailaren 8an.

KATEGORIEN ZERRENDA - 2014 KONTRATAZIO-ZERRENDAK

Osakidetzako Webgunean Inskripzioak egingo dira: <http://www.osakidetza.euskadi.net>

Norabidea: Profesionalak/Giza Baliabideak/Hautatze eta Hornidura/Aldi Baterako Kontratazioa/Kontratazio-zerrendak

Inskripzioak egiteko epea: 2015eko urtarrilaren 08tik 30ra

FAKULTATIBO MEDIKO ETA TEKNIKOAK	Egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1 FAK. ESP. AHO ETA AURPEGI-MASAILAETAKO KIRURGIAKO MEDIKUA	2011-12-19
2 FAK. ESP. ANATOMIA PATOLOGIKOKO MEDIKUA	2011-12-05
3 FAK. ESP. ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORKETAKO MEDIKUA	2011-12-19
4 FAK. ESP. ANGIOLOGIA ETA HODIOETAKO KIRURGIAKO MEDIKUA	2011-12-05
5 FAK. ESP. APARATU DIGESTIBOKO MEDIKUA	2011-12-05
6 FAK. ESP. BARNE MEDIKUNTZAKO MEDIKUA	2011-12-19
7 FAK. ESP. BIHOTZ-HODIETAKO KIRURGIAKO MEDIKUA	2011-12-05
8 FAK. ESP. DERMATOLOGIA MEDIKO-KIRURGIA ETA BENERELOGIAKO MEDIKUA	2011-12-05
9 FAK. ESP. ENDOKRINOLOGIA ETA NUTRIZIOKO MEDIKUA	2011-12-19
10 FAK. ESP. ERRADIODIAGNOSTIKOKO MEDIKUA	2011-09-12
11 FAK. ESP. ERRADIOTERAPIA ONKOLOGIKOKO MEDIKUA	2011-12-05
12 FAK. ESP. ERREUMATOLOGIAKO MEDIKUA	2011-12-05
13 FAK. ESP. ETXEKO OSPITALIZAZIORAKO MEDIKUA	2011-12-19
14 FAK. ESP. FAMILIAKO MEDIKUA (LMT)	2011-10-05
15 FAK. ESP. HAURRENTZAKO PSIKIATRIAKO MEDIKUA	2011-12-05

16 FAK. ESP. HEMATOLOGIA ETA HEMOTERAPIAKO MEDIKUA	2011-12-05
17 FAK. ESP. KARDIOLOGIAKO MEDIKUA	2011-12-19
18 FAK. ESP. KIRURGIA OROKORRA ETA APARATU DIGESTIBOKO MEDIKUA	2011-12-05
19 FAK. ESP. KIRURGIA ORTOPEDIKOA ETA TRAUMATOLOGIAKO MEDIKUA	2011-12-05
20 FAK. ESP. KIRURGIA PLASTIKOA, ESTETIKOA ETA KONPONTZAILEKO MEDIKUA	2011-12-05
21 FAK. ESP. MEDIKUNTZA FISIKOA ETA ERREHABILITAZIOKO MEDIKUA	2011-12-05
22 FAK. ESP. MEDIKUNTZA INTENTSIBOKO MEDIKUA	2011-12-05
23 FAK. ESP. MEDIKUNTZA NUKLEARREKO MEDIKUA	2011-12-05
24 FAK. ESP. MEDIKUNTZA PREBENTIBO ETA OSASUN PUBLIKOKO MEDIKUA	2011-12-19
25 FAK. ESP. NEFROLOGIAKO MEDIKUA	2011-12-05
26 FAK. ESP. NEUMOLOGIAKO MEDIKUA	2011-12-05
27 FAK. ESP. NEUROLOGIAKO MEDIKUA	2011-12-05
28 FAK. ESP. OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIAKO MEDIKUA	2011-09-12
29 FAK. ESP. OFTALMOLOGIAKO MEDIKUA	2011-12-05
30 FAK. ESP. ONKOLOGIA MEDIKUKO MEDIKUA	2011-12-05
31 FAK. ESP. OSPITALEKO ERRADIOFISIKAKO MEDIKU TEKNIKARIA	2011-12-19
32 FAK. ESP. OSPITALE-FARMAZIAKO TEKNIKARIA	2011-12-19
33 FAK. ESP. OSPITALE-PEDIATRIAKO MEDIKUA	2011-11-16
34 FAK. ESP. OSPITALEKO LARRIAIAIETAKO MEDIKUA	2011-12-19
35 FAK. ESP. OTORRINOLARINGOLOGIAKO MEDIKUA	2011-12-19
36 FAK. ESP. PEDIATRIA KIRURGIKOKO MEDIKUA	2011-12-19
37 FAK. ESP. PEDIATRIA MEDIKUA - LMT	2011-09-12
38 FAK. ESP. PSIKIATRIAKO MEDIKUA	2011-12-05
39 FAK. ESP. PSIKOLOGO-KLINIKO TEKNIKARIA	2011-12-19

40 FAK. ESP. TORAXEKO KIRURGIAKO MEDIKUA	2012-02-15
41 FAK. ESP. UROLOGIAKO MEDIKUA	2011-12-19
GOI-MAILAKO TEKNIKOAK	Egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1 EUSKARAREN NORMALKUNTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	2015-01-30
2 INFORMATIKAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	2015-01-30
3 SEGURTASUN ETA HIGIENEAREN PREBENTZIORAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	2015-01-30
DIPLOMATU SANITARIOAK	Egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1 EMAGINA	2011-12-21
2 ERIZAINA	2012-02-15
3 FISIOTERAPEUTA	2012-02-15
4 LAN-OSASUNEKO ERIZAINA	2012-02-15
5 OSASUN MENTALEKO ERIZAINA	2012-02-15
6 TERAPEUTA OKUPAZIONALA	2012-02-15
ERDI-MAILAKO TEKNIKOAK	Egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1 EUSKARAREN NORMALKUNTZAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	2015-01-30
2 GIZARTE-LANGILEA	2012-02-15
3 SEGURTASUN ETA HIGIENEAREN PREBENTZIORAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	2015-01-30
TEKNIKO ESPEZIALISTA SANITARIOAK	Egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1 ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARIA	2012-02-15
2 ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARIA	2012-02-15
3 OSASUN-DOKUMENTAZIOKO TEKNIKARIA	2012-02-15
ADMINISTRAZIOKO TEKNIKO ESPEZIALISTAK	Egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1 ADMINISTRARIA	2011-12-21
TEKNIKO ESPEZIALISTA PROFESIONALAK	Egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1 INFORMATIKAKO TEKNIKARIA	2012-02-15
TEKNIKO LAGUNTZAILE SANITARIOAK	Egun azkena esperientzia kontuan hartzeko

1 ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEA	2011-12-21
2 FARMAZIAKO LAGUNTZAILEA	2012-02-15
ADMINISTRAZIOKO TEKNIKO LAGUNTZAILEAK	Egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1 ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2011-12-21
TEKNIKO LAGUNTZAILE PROFESIONALAK	Egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1 GARRAIO SANITARIOAREN GIDARI OFIZIALA	2012-02-15
2 LARRIALDIETAKO IBILGAILUEN GIDARI OFIZIALA	2012-02-15
3 ZERBITZU OROKORRETAKO GIDARI OFIZIALA	2012-02-15
4 MANTENTZEKO OFIZIALA	2012-02-15
MENPEKOAK / OPERARIOAK	Egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1 ZELARIA	2011-12-21
2 ZERBITZUETAKO LANGILEA	2011-12-21